

**896/2006/EE ERABAKIA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA
KONTSEILUARENA,
2006ko ekainaren 14koa**

**Honen bidez, kanpoko mugetan pertsonak kontrolatzeko araubide erraztua ezartzen da.
Suitzak eta Liechtensteinek emandako egoitza-baimen jakin batzuk Estatu kideek alde
bakarrez onartzean datza araubide hori, pertsonak beren lurretan zehar igarotzeko xedez.**

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA
KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa eratzeko Trataturia, eta, bereziki, haren 62. artikulua 2. paragrafoaren a) idatz-zatia aztertu dute,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Tratatuaren 251. artikuluan ⁽¹⁾ ezarritako prozedurari jarraituz,

Honako hauek kontuan hartuta:

- (1) Muga erkideetako kontrola modu mailakatuan ezabatzeko, Schengengo Akordioa sinatu zuten, 1985eko ekainaren 14an, Beneluxeko Batasun Ekonomikoak, Alemaniako Errepublika Federalak eta Frantziako Errepublikak ⁽²⁾, eta akordio hori aplikatzeko, bisa bateratuen baliokide izango dira, 1990eko ekainaren 19ko Hitzarmenaren 21. artikulua araututakoaren baitan, Schengengo altxorra oso-osorik aplikatzen duten Estatu kideek ematen dituzten egoitza-baimenak.
- (2) Dena dela, Erkidegoko egungo arauak ez dute ezartzen kanpoko mugetan pertsonak kontrolatzeko araubide errazturik, hirugarren herrialderen batek emandako egoitza-baimenak bisa bateratuen baliokidetzat har daitezten, pertsonak erkidegoko lurretan zehar igarotzeko edo egonaldi laburretarako baimena izateko.
- (3) Hirugarren herrialdeetako herritarrek Suitzan emandako egoitza-baimena badute, eta, Kontseiluaren 2001eko martxoaren 15eko 539/2001 (EE) Erregelamenduak araututakoari jarraiki, bisa lortzeko betebeharra badute — Erregelamendu horrek arautzen du zer herrialdeetako nazionalak eskatu behar duten bisa muga nazionalak igarotzeko eta zer herrialdeetakoak dauden salbuetsita— ⁽³⁾, bisa

eskatu behar dute, Erkidegoko eremua igarotzeko, beren herrialdeetara itzultzean. Ondorioz, Estatu kideek Suitzan dituzten kontsuletxeetako bulegoek bisa ugari tramitatu behar dituzte, hirugarren herrialde horietako hiritarren eskaera handiari erantzuteko. Liechtensteinek emandako egoitza-baimena dutenek egindako bisa eskariek ere antzeko arazoak eragin dituzte.

- (4) Schengengo altxorra bi alditan aplikatzearen ondorioz, 2004ko maiatzaren 1ean Europar Batasuneko kide egin diren Estatu berriek, aipatu datatik aurrera, bisa nazionalak eman behar dizkiete Suitzak eta Liechtensteinek emandako egoitza-baimena duten hirugarren herrialdeetako herritarrei, 539/2001 (EE) Erregelamenduak araututakoari jarraiki, herritar horiek bisa behar badute. Zenbait Estatu kide berrik kezka azaldu dute, Suitzan eta Liechtensteinen dituzten kontsuletxeetako bulegoek zama administratibo gehigarria izango baitute.
- (5) Ez dirudi beharrezkoa denik Estatu kideek pertsona horiei bisa eskuratzeko obligazioa ezartzea, legez kanpoko immigrazioa sartzeko arrisku txikia baitakarkie Estatu kideei.
- (6) Schengengo altxorra guztiz aplikatzen duten Estatu kideek eta Estatu kide berriek Suitzan eta Liechtensteinen dituzten kontsuletxeetako bulegoen arazoa konpontzeko, araubide erraztu bat ezarri behar da, pertsonak kanpo-mugetan kontrolatzeko; hala, Suitzan eta Liechtensteinen emandako egoitza-baimen jakin batzuen alde bakarrek onarpenean oinarrituta, baimen horiek bisa bateratuen edo nazionalen baliokide izango dira.
- (7) Onarpen horrek mugak igarotzeko helburua izango du soilik; dena dela, Estatu kideek beti izango dute egonaldi laburretako bisak emateko aukera.
- (8) Onarpenaren araubidea aplikatzea derrigorrezkoa izango da Schengengo altxorra guztiz aplikatzen duten Estatu kideentzat eta aukerakoa Estatu kide berrientzat, betiere, xedapen hau aplikatzen badute: 895/2006 EE Erabakia, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2006ko ekainaren 14koa, kanpo-mugetan pertsonen kontrolerako araubide erraztu bat ezartzen duena, zeina Txekiar Errepublikak, Estoniak, Ziprek, Letoniak, Lituaniak, Hungariak, Maltak, Poloniak, Esloveniak eta

¹ 2006ko apirilaren 6ko Europako Parlamentuaren Irizpena (Egunkari Ofizialean argitaratu gabea) eta 2006ko ekainaren 1eko Kontseiluaren Erabakia.

² EO L 239 2000.9.22koa, 19.or.

³ EO L 81 2001.3.21ekoa, 1.or., 851/2005 (EO L 141 2005.6.4koa, 3 or.) (EE) Araudiak azken aldatu duen Araudia.

Eslovakiak alde bakarrez eta pertsonak haien lurraldeetatik igarotzeko bisa nazionalen baliokidetzat onetsitako zenbait agiritan oinarritzen den ⁽¹⁾. Dena dela, aplikatu beharra aukerakoa izatea behin-behineko kontua izango da, hau da, harik eta Kontseiluak ezarri behar duen egunera arte, 2003ko Atxikitze-aktaren 3. artikulua 2. paragrafoko lehenengo leerroaldearekin bat etorriz.

(9) Europako Parlamentuaren eta Europar Batasuneko Kontseiluaren 562/2006 (EE) Erregelamenduak, 2006ko martxoaren 15ekoak, pertsonak mugak gurutzatzeari buruzko Erkidegoko Kodea (Schengen muga-kodea) ezartzeak, 5. artikulua 1. paragrafoan araututako sarrera-baldintzak ⁽²⁾ bete egin beharko dira, 5. artikuluko 1. paragrafoko b) letraren kasuan izan ezik, erabaki honek baliokidetzat jotzen dituen heinean igarobide-bisak eta Suitzak eta Liechtensteinek emandako egoitza-baimenak.

(10) Erabaki honen xedeak zuzenean eragiten dio Erkidegoaren altxorrari, bisei dagokienez, baina Estatu kideak ez daude xede hori egokitasunez betetzeko moduan; hala, Estatu bakoitzean baino, xedea betetzeko aukerak handiagoak dira Erkidego-mailan, Tratatuaren 5. artikuluan emandako subsidiariotasun-printzipioari jarraiki, Erkidegoak neurriak har baititzake hori guztia aurrera eramateko. Artikulu horrek adierazitako proportzionaltasun-printzipioa betez, xede hori betetzeko neurriak finkatzera mugatzen da erabaki hau.

(11) Islandiari eta Norvegiari dagokienez, erabaki honek Schengengo altxorreko xedapenak garatzen ditu, Europar Batasuneko Kontseiluak Islandiako Errepublikarekin eta Norvegiako Erresumarekin Schengengo altxorra betetzeko, aplikatzeko eta garatzeko egindako akordioa betez. Xedapen horiek aipatu akordioa garatzeko arauari buruzko Kontseiluaren 1999/437/CE Erabakiaren 1. artikulua A idatz-zatian daude jasota ⁽³⁾.

(12) Danimarkaren jarrerari buruzko Protokoloa Europar Batasunaren Tratatuan eta Europako Erkidegoa eratzeko Tratatuan dago atxikia. Protokolo horretako 1. eta 2. artikuluen arabera, Danimarkak ez du erabaki honetan parte hartzen, eta ez dauka erabaki hori zertan aplikatu. Kontuan izanda Erabaki honek Schengengo altxorra garatzen duela, Europako Erkidegoa eratzeko Tratatuaren 3. zatian IV. tituluarri jarraiki, Danimarkak, aipatu Protokolo 5. artikulua baitan, sei hilabeteko epea du, erabakia hartzen den egunetik hasita, erabakia barne-zuzenbidean jasoko duen ala ez erabakitzeko.

(13) Erabaki honek Schengengo altxorreko xedapenak garatzen ditu, baina Erresuma Batuak ez du xedapen horietan parte hartzen, Britainia Handiko eta Ipar Irlandako Erresuma Batuak Schengengo altxorreko hainbat xedapenetan parte hartzeko egindako eskariari buruz Kontseiluak 2000ko maiatzaren 29an hartutako 2000/365/EE Erabakiak xedatutakoari jarraiki ⁽⁴⁾. Hori guztia dela-eta, Erresuma Batuak ez du erabaki honetan parte hartzen, eta ez du erabaki hori zertan aplikatu.

(14) Erabaki honek Schengengo altxorreko xedapenak garatzen ditu, baina Irlandak ez du xedapen horietan parte hartzen, 2002ko otsailaren 28an Irlandak Schengengo altxorreko hainbat xedapenetan parte hartzeko egindako eskariari buruzko Kontseiluaren 2002/192/EE Erabakiak xedatutakoari jarraiki ⁽⁵⁾. Hori guztia dela-eta, Irlandak ez du erabaki honetan parte hartzen, eta ez du erabaki hori zertan aplikatu.

ERABAKI HAU ONARTU DUTE:

1. artikulua

Pertsonak kanpo-mugetan kontrolatzeko araubide erraztua ezartzen du erabaki honek, eta bere oinarria da Suitzak eta Liechtensteinek, 539/2001 EE Erregelamenduak araututakoaren baitan, bisa eskuratzeko obligazioa ezarrita duten hirugarren herrialdeetako herritarrei emandako egoitza-baimenak alde bakarrez onartzea Estatu kideek, agiri horiek bisa bateratu edo nazionalen baliokidetzat jotz, beren lurralde-eremuetatik igarotzeko xedez.

Erabaki honek ez du eraginik izango kanpo-mugetan pertsonen egiten zaien ikuskapenetan, 562/2006 (EE) Erregelamenduaren 5. artikulutik 13. artikulura eta 18. artikulutik 19. artikulura bitartean araututakoari jarraiki.

2. artikulua

Schengengo altxorra guztiz aplikatzen duten Estatu kideek alde bakarrez onartuko dituzte Suitzan eta Liechtensteinen emandako eta eranskineko zerrendan azaltzen diren egoitza-baimenak.

895/2006/EE Erabakia aplikatzen duten Estatu kide berriek alde bakarrez onar ditzakete erabaki honen eranskineko zerrendako egoitza-baimenak, egonaldiatarako bisa nazionalen baliokide izateko Kontseiluak ezartzen duen egunera arte, 2003ko Atxikitze-aktaren 3. artikulua 2. paragrafoaren lehen leerroaldeak araututakoak beteta.

3. artikulua

¹ Ikus Egunkari Ofizial honetako 1. or.

² EO L 105 2006.4.13koa, 1. or.

³ EO L 176 1999.7.10, 31. or.

⁴ EO L 131 2006.6.1ekoa, 43. or.

⁵ EO L 64 2002.3.7koa, 20. or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

Hirugarren herrialdetako herritarrek ezingo dute bost egun baino gehiago eman, Estatu kidearen edo Estatu kideen lurretatik igarotzeko.

Eranskinean azaltzen diren agirien baliozkotasun-epeak bat etorri beharko du igarotze-epearekin.

4. artikulua

Erabaki hau aplikatzea erabakitzen duten Estatu kide berriek Batzordeari jakinaraziko diote asmo hori, 2006ko abuztuaren 1a baino lehenago. Estatu kide berriek emandako informazioa Batzordeak argitaratuko du *Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean*.

5. artikulua

Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean argitaratu eta hogeit egunetara jarriko da indarrean erabaki hau.

Erabaki hau aplikatuko da, harik eta Schengengo Hitzarmenaren 21. artikulua xedapenak Suitzarentzat eta Liechtensteinentzat indarrean jarri arte, Europar Batasunaren, Europako Erkidegoaren eta Suitzar Konfederakundearen artean Suitzar Konfederakundeak Schengengo altxorra betetzeko, aplikatzeko eta garatzeko Akordioaren 15. artikuluari jarraituz.

6. artikulua

Estatu kideak dira erabaki honen hartzaileak, Europako Erkidegoa eratzeko Tratatuari jarraiki.

Estrasburgon, 2006ko ekainaren 14an.

Europako Parlamentua

Presidentea

J. BORRELL FONTELLES

Kontseilua

Presidentea

H. WINKLER

167/10 L EU Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala
2006.6.20